

## **DIRU-ITURRIAK**

Produktua bezeroei salduz lortuko ditugu diru-sarrerak. Enpresen ordainketa ahalmena desberdina denez, bi ordainketa metodo eskainiko ditugu, gure produktuaren prezioa malguagoa izateko. Enpresa handien kasuan, gaitasun ekonomiko handiagoa dutenez gero, gure produktuarengatik hileroko ordainketa finko bakarra eskatuko diegu. Enpresa txiki eta ertainen kasuan, aplikazioaren bidez saldutako produktuen portzentaia txiki bat eskatuko genieke, adibidez, gure aplikazioarekin lortutako erosketa guztiek emandako salmenten %2-a.